



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO EKAINAREN 26AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Josune Estella Arranzk eta Irene Gartzia Palaciosek.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2018/06/12KO BILKURA.**

Batzarkideek 2018ko ekainaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2018/06/19KO BILKURA.**

Aktaren onarpenean Jone Urdanpilleta abstenitu egin da ez zelako bilkuran egon. Horrenbestez, 2018ko ekainaren 19ko bilkurako akta gehiengoz onartu da abstentzio batekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

2.- MUNALURRA KALEA 18 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0063

MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20320941) ordezkartizan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileak, Munalurra kalea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 155.424,62 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.637,10 €
	Fidantza (%120): 1.964,52 €




Usurbilgo Udala

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko apirilaren 17an ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2018ko ekainaren 15ean emandako 2018/0686 dekretuaren bidez, MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H-20320941), Munalurra kalea 18 etxean igogailua ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 21,67 m²-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2018ko ekainaren 15ean formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MUNALURRA KALEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20320941) ordezkarietan diharduen B & A INMOGEST, S.L. administratzaileari, Munalurra kalea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.637,10 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean



Usurbilgo Udala

(1.964,52 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.964,52 €-ko fidantza Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2018-0063*” jarriaz kontzeptuan.

- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- Elisa Iztueta Eizmendi arkitektoak 2018ko urtarrilean (EHAEO 2018-01-26) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA.** Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 21,67 m²-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- **ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA.** Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioaren bat jartzea, beharrezkoa den zerbeit ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* bete beharko ditu, eta bereziki ondokoak:
 - Sarrerako atearen 2 aldeetan gutxienez 1,4 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.
 - Igogailuaren sarreraren aurrean 1,5 m-ko diametrodun oztoporik gabeko zirkunferentzia.



Usurbilgo Udala

- igogailuaren kabinak gutxieneko 1,00 mx1,25 m-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 0,80 m-ko pasabide libre.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira eta eskaileran eskubarandak jarri.
 - Eskailera tramu berriek 1,0 m-ko gutxieneko zabalera izango dute.
 - Igogailurainoko korridoreak gutxieneko 1,1 m-ko zabalera izango du.
 - Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengoa bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.
 - Etxebizitzaren handitze guneek egungo etxebizitzaren sestra mantendu beharko dute.
 - Elementu berriaren kanpotiko akaberak, Udalak onartutako Oinarrizko Proiektuan finkatutakoak eta halaber, jada egikaritutako Munalurra 20an egin den igogailu obra berriaren ezarritako berak izan beharko dute, etxadiaren konposizioa mantentzearen.
 - Orohar, igogailuak eraikinean etxebizitzak kokatzen diren solairu guztietara eman beharko du zerbitzua.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
 - LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzean zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planuak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Igogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
 - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala

- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- KALEZARKO SOKORROKO AMA BIRJINAREN ERMITAREN ONDOKO SANTUTXOA BIRGAITZEA: PROPOSAMEN BERRIAREN ARABERAKO BIRGAITZEA GAUZATZEKO UDAL BAIMENIK EZ EMATEA ETA TGBK 2018KO APIRILAREN 24AN EMANDAKO UDAL BAIMENA BERRESTEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 24ean, USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkartzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunari, Kalezarko Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoa birgaitzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

Geroztik ordea, Ibon Alberdi Urrestarazuk idatzia aurkeztu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 24an baimendutako proiektuan aldaketa batzuk proposatzeko. Baimena jasotako proiektua urtarrilaren 8an aurkeztu zen Kalezarko Santutxoa berritzeko helburuarekin. Proiektu horrek proposatzen zuena honakoa da: *“Visto cuanto antecede, el presente proyecto propone una intervención constructiva para la reparación de la estructura de cubierta y la sustitución de su revestimiento de teja en el calvario de la Ermita Sokorroko Ama de Usurbil. (...)”*

Orain, berriz, teilatua desmuntatu eta eraikinaren atzeko horma hiru alboetan dagoen itxuraren neurria jaiste proposatzen da.

Proposamen berria aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko ekainaren 24an KONTRAKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari

SOKORROKO AMA BIRJINAREN ERMITAREN ONDOKO SANTUTXOAREN PROIEKTUAREN ALDAKETA PROPOSAMENARI BURUZKO TXOSTENA

ESKAERA DATA; 2018ko maiatzaren 24a.
KOKAPENA; Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren Ondoko Santutxoa, Kalezar auzoa, Usurbil.

1. AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

- Udaltzaingoak jakinarazi duenez Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoaren estalki zati bat erori egin zen
- Berehala bertaratzea egin da gertatutako baloratzeko.
- 2017ko abenduaren 11ean udal arkitektoaren txostena.
- 2017ko abenduaren 13an alkatearen dekretua
- 2018ko urtarrilaren 8an interesatuak proiektua aurkeztu du dagokion obra baimena eskatuz.
- 2018ko martxoaren 12an udal arkitektoaren aldeko txostena.
- 2018ko apirilaren 13an udal aparejadorearen txostena.
- 2018ko apirilaren 24an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia baimena emanaz.

2. TXOSTENA

Ibon Alberdi Urrestarazuk idatzia aurkeztu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 24an baimendutako proiektuan aldaketa batzuk proposatzeko. Baimena jasotako proiektua Urtarrilaren 8an aurkeztu zen Kalezarko Santutxoa berritzeko helburuarekin. Proiektu horrek proposatzen zuena honakoa da: *“Visto cuanto antecede, el presente proyecto propone una intervención constructiva para la reparación de la estructura de cubierta y la sustitución de su revestimiento de teja en el calvario de la Ermita Sokorroko Ama de Usurbil. (...)”*

Orain, berriz, teilatua desmuntatu eta eraikinaren atzeko horma hiru alboetan dagoen itxituraren neurria jaitea proposatzen da.

Eraikin hau Usurbilgo AASSTBeko SGER-3 Sokorroko Ama Birjinaren Eliza eremuan dago. Eta dagokion fitxan eraikinak finkatutzat hartzen dira, hauen mantentzea aurreikusiz.

Santutxoa Usurbilgo Udaleko Ondare Kulturalaren zerrendan jasota dago, 2.b kategoriako babes mailarekin (lehentasunezko interesa duten ondasun higiezinaren multzoan). AASSTBeko Esku-hartze erregimenari buruzko 70. artikuluan honako jasotzen da:

“2. Categoría. Inbentariatuak izateko proposatuak edo lehentasunezko interesa duten ondasun higiezinak.

Eraikuntza hauetan bere kanpoko inguratzailea (fatxadak eta estalkia) katalogatutzat hartuko da eta urbanizazioetan partzelaren kanpoko itxitura. Haunditza onartuko da, bere hustuketa eta berreraikuntza fatxada iraunkorra hartuz eta Udalak gainera interes duten elementuak zaintzeko betebeharrarekin hartu beharko dituela erabakiak.”

Eskaera eta proiektua aztertu ostean, honakoak esan daitezke:

- **2.B KATEGORIAKO BABESA DUEN ONDARE ARKITEKTONIKOAREN ESKU-HARTZE ERREGIMENA BETETZEA:** Santutxoa Usurbilgo Udaleko Ondare Kulturalaren zerrendan jasota dagoenez (2.b kategoriako babes mailarekin), aurretik adierazi den moduan, eraikuntza hauetan bere kanpoko inguratzailea (fatxadak



Usurbilgo Udala

eta estalkia) mantendu egin beharko da. Beraz, **proposatu den aldaketa ezin da onartu.**

- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:** Eraikinaren egoera dela eta 2018ko apirilaren 24an udal baimena jaso zuen proiektuaren arabera obrak berehalakoan hasteko eskatu zen. Beraz, **berriro ere obrak berehalakoan hasteko eskatu beharra dago.**

Izan ere, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 199. artikuluko 1. puntuan honakoa jasotzen da, bestek beste:

“199. artikulua.–Kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharra.

*1.– Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.
(...)”*

3. ONDORIOA

Beraz, goian esandakoari jarraiki, aurkeztutako eskaerari KONTRAKO txostena idazten zaio eta berehalakoan 2018ko apirilaren 24an udal baimena jaso zuen proiektuaren arabera obrak hasteko eskatzen da.

Hauxe da izenpetzen duen udal teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko ekainaren 15ean
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkarietan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunak, Kalezarko Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoa birgaitzeko egindako proposamen berriaren kontra agertzea eta berau gauzatzeko udal baimenik ez ematea.

BIGARRENA: Kalezarko Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoa birgaitzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 24ean, USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkarietan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunari emandako udal baimena berrestea.

HIRUGARRENA: Kalezarko Sokorroko Ama Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoaren egoera eta eragiten duen arriskua kontutan izanik, birgaitzeko lanekin



Usurbilgo Udala

BEREHALA hasteko agintzea USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkartzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunari.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

4.- OIARDO UDAL KIROLDEGIAREN INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO 01 FASEAREN EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.10/2017-0098

AURREKARIAK

2016ko urriaren 27an, Alkatetzak, 2016/1052 dekretuaren bidez, Oiardo kiroldegiko instalazio mekaniko eta elektrikoak berritzeko proiektua idazteko agindua eman zuen.

Geroztik berriz, gaiaren inguruko hausnarketa egin ostean guzti hau, egitasmo zabalago baten baitan barneratzea erabaki zuen. Egitasmo horrek Oiardo kiroldegiaren egungo egoeraz gain etorkizuneko eskakizunei erantzuteko instalakuntzak jasoko lituzke eta baita egungo eraikinaren birmoldaketa, kanpo azaleraren handitze/egokitzapena eta birgaitzea ere.

Hala, 2016ko urriaren 27an, 2016/1052 dekretuaren bidez, Alkatetzak, Oiardo kiroldegiko berrikuntza, handitze eta instalakuntzen erreforma aurreproiektua idazteko Zerbitzuen kontratu txikia esleitu zion FERNANDO BAJO MARTINEZ DE MURGIA arkitektoari. FERNANDO BAJO MARTINEZ DE MURGIA arkitektoak 2017ko martxoaren 8an aurkeztu zuen aurreproiektua.

01 FASEAREN EXEKUZIO PROIEKTUA

Usurbilgo Udalak, Oiardo Udal Kiroldegiko egungo igerilekuaren handitzea/birgaitzea eta irisgarritasun egokitzapena eta horretarako beharrezkoak diren instalakuntzen erreforma burutzea erabaki zuen. Honakoak bete nahi dira, besteak beste:

- igerileku eremuan irisgarritasun baldintzak betetzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak.
- oinarri bezala hartuko da ENEKA S.L.-ren *“Proyecto de Reforma de las Instalaciones Térmica y de electricidad en el Polideportivo Oiardo de Usurbil”* (2017ko ekaina), bertatik beharrezkoak diren faseak barneratuz.
- beharrezkoa den egiturazko kalkulua egungo igerilekua jaisteko (behe solairuaren sestrara).



Usurbilgo Udala

Gauzak horrela, 2017ko abenduaren 1ean, Alkateak, 2017/1235 dekretuaren bidez, obrak burutu ahal izateko dagokion Exekuzio Proiektua (*Oiaro Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen exekuzio proiektua*) idaztea esleitu zien FERNANDO BAJO MARTINEZ DE MURGIA eta ASIER ACURIOLA BARRIO arkitektoei. Hauek 2018ko otsailaren 22an aurkeztu zuen Exekuzio Proiektua.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 5ean, zera erabaki zuen: Oiaro Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen Exekuzio Proiektua onartzea, udal teknikariek ezarritako baldintzekin.

OBREN ESLEIPENA

Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 5ean onartutako Oiaro Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen Exekuzio Proiektua horretako obren lizitazioa martxan jarri zen. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 48. zenbakian, 2018ko martxoaren 8an argitaratu zen obren lizitazioa. Eskaintzak aurkezteko 29 egun naturaleko epea igarota, ez zen hautagairik aurkeztu.

EXEKUZIO PROIEKTU MOLDATUA

Gauzak horrela, lizitazioaren baldintzak aldatzea erabaki zen. Bestek beste, proiektuko aurrekontua berrikusi da, eta proiektuan aurreikusten ziren azpifaseak ere aldatzea hobetsi zen.

FERNANDO BAJO MARTINEZ DE MURGIA eta ASIER ACURIOLA BARRIO arkitektoek 2018ko ekainaren 15ean aurkeztu dute Exekuzio Proiektua moldatua.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko ekainaren 19an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
UDAL EKIPAMENDUAK

**OIARDO UDAL KIROLDEGIAREN INSTALAKUNTZEN
ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO
01 FASEAREN
EXEKUZIO PROIEKTUARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Gernika Ibilbidea, 9, Usurbil.
AURKEZPEN DATA: 2018ko ekainaren 15a
ESPEDIENTE ZBKIA: HZ,10/2018-0098



Usurbilgo Udala

01A azpifasearen exekuzio proiektuaren PEM: 346.101,15 euro.

01B azpifasearen exekuzio proiektuaren PEM: 187.021,12 euro.

01 FASEAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM guztira: 533.122,27 euro.

Hondakinen kudeaketarako azterlana: 4.126,94 euro.

1. AURREKARIAK.

- 2018ko otsailaren 22an Oiardo Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen exekuzio proiektua aurkeztu da.
- 2018ko martxoaren 1ean udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko martxoaren 2an udal aparejadorearen txostena.
- 2018ko martxoaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia Exekuzio Proiektua onartuz.
- 2018ko maiatzaren 4an EJko Osasun Saialren txostena.
- 2018ko ekainaren 15ean zuzendutako Exekuzio Proiektua aurkeztu da.

Erlazionatutako espedienteak:

HZ10-2017-122. Oiardo Kiroldegia genero ikuspuntuarekin egokitzeko, birgaitzeko eta instalazioak berritzeko aurreproiektua

- 2017ko martxoaren 8an Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoek Oiardo Kiroldegia genero ikuspuntuarekin egokitzeko, birgaitzeko eta instalazioak berritzeko aurreproiektua aurkeztu zuen

HZ06-2017-90. Gipuzkoako Kirol ekipamenduen plana 2017-2020. Oiardo birgaitzeko obraren dirulaguntza

- 2017ko urtarrilaren 23 eta 24an 2017-2020 aldiko DFAko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzen deialdia eta oinarriak argitaratu ziren GAOn
- Usurbilgo Udalak Oiardo Udal Kiroldegiaren Instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako aurreproiektua aurkeztu zuen 2017ko otsailaren 24an
- 2017ko uztailaren 5ean GFaren diru laguntzen deialdiaren ebazpena argitaratu zen, Usurbilgo udalari diru laguntza emanaz
- 2017ko azaroaren 20an Usurbilgo Udala eta GFaren arteko Lankidetzeta Hitzarmena sinatu zen 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko

HZ14-2016-520. Oiardo Kiroldegiko instalazioen erreformarako proiektua

HZ05-2018-0284. Oiardo Kiroldegiko Obra Kontratua



Usurbilgo Udala

2. SARRERA.

Oiardo kiroldegiaren jatorrizko eraikina A. Zulueta arkitektoak diseinatu zuen eta 1987an eraiki zen. Geroago, 2010ean, kiroldegiaren fatxada nagusiari erantsitako handitze bat egin zen Javier Lertxundi arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Orain, berriz, jatorrizko eraikinean dagoen igerilekuen guneari eta instalazioei eragiten dien birgaitze proiektua idatzi da. Izan ere, gaur egungo igerileku txikiak ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen eta zaharkituta dauden instalazioek duten berritzeko premia ere nabarmena da.

Hori dela eta, Usurbilgo Udala Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen 2017-2020 Planaren arabera ateratako deialdira aurkeztu zen. Bertan, proiektu honek puntuaziorik altuenetakoa lortu zuela ikusita, Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari diru-laguntza ematea onartu zuen. Horregatik, bi administrazioek Lankidetzaz Hitzarmena sinatu zuten 2017ko Azaroan. Udalaren betebeharren artean daude Oiardo Kiroldegiko instalazioen berritze, egokitze eta birgaitze Proiektua idaztea eta honen araberrako obrak gauzatzea.

Geroztik, Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoek Oiardo Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen exekuzio proiektua aurkeztu zuen udalean 2018ko otsailaren 22an. Eta proiektu horretan oinarrituta obren lizitazioa martxan jarri zen; GAOaren 2018ko martxoaren 8ko 48. ebazpenean argitaratu zen obren lizitazioa. Eskaintzak aurkezteko 29 egun naturaleko epea igarota, ez zen hautagairik aurkeztu.

Gauzak horrela, lizitazioaren baldintzak aldatzea erabaki zen. Besteak beste, proiektuko aurrekontua berrikusi da, eta proiektuan aurreikusten ziren azpifaseak ere aldatu egin dira.

3. TXOSTENA.

Asier Acuriolak Oiardo Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen exekuzio proiektu zuzendua aurkeztu du. Proiektua teknikari gaituak (Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoek) izenpetuta eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsita (2018-06-11) dago. Exekuzio Proiektuak honakoak jasotzen ditu: memoria, eranskinak (egituraren kalkuluak, instalazioen kalkuluak eta igerilekuaren eraikuntza memoria), planoak, neurketak eta aurrekontua, baldintza plegua, segurtasun eta osasun azterlana, hondakinen kudeaketarako azterlana eta kalitate kontrolaren programa. Proiektuaren memoria bi hizkuntzetan aurkeztu da.

Aurkeztu proiektuaren helburua aurretik aurkeztu zen Exekuzio Proiektuaren helburu bera da, 2017ko martxoan aurkeztutako Aurreproiektuko 01 faseari dagozkion obrak jasotzea da, alegia; laburbilduz, igerileku txikia handiago batengatik ordezkatzeko proposatzen da, batetik, eta klimatizazio eta filtrazio instalazioak berritzea, bestetik.



Usurbilgo Udala

01 faseari dagokion proiektu zuzendu hau bi azpifase berritan banatzen da: 01A fasea, eraikuntzako birgaitze-obra eta instalazio orokorren egokitzapenaren fase nagusia, 346.101,15 euroko EMA (PEM) duena, eta 01B fasea, igerilekuaren eraikuntza eta filtrazio sistema barneratzen dituen lan espezifikokoari dagokiona eta 187.021,12 euroko EMA (PEM) duena.

Proiektua aztertu ondoren, honakoak esan daitezke:

Proiektua, oro har, aurretik aurkeztutakoaren berdina da. Aldatzen dena aurrekontuaren kopurua eta azpifaseen banaketa da. Beraz, 2018ko martxoaren 1ean idatzitako arkitektoaren txostenean jasotakoak berresten dira.

4. ONDORIOAK.

Goian aipatutakoari jarraiki Exekuzio Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzekotan:

- Oro har, indarrean den araudia bete beharko da obraren exekuzioan ere. (EKT, Irisgarritasun Araudia, e.a.)
- Obra bukatzen denean, ordea, igerilekua ireki aurretik, Osasun Sailaren oniritzia jasotzea beharrezkoa da.
- Azpiegiturei dagokienez, zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko ekainaren 19an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Udal arkitektoak adierazi bezala, aurkeztutako proiektua aurretik aurkeztutakoaren berdina da. Beraz, Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko martxoaren 2an emandako txostena bere horretan mantentzen da. Hitzez hitz honela dio:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKATZAILEA: Hirigintza saila
PROIEKTUA: Oiardo Udal kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako eta birgaitzeko 01 fasearen exekuzio proiektuak
KOKAPENA: Gernika ibilbidea 9 (Oiardo udal kiroldegia)
ESP. ZENB: HZ.10/2018-0098


TXOSTENA:

Oiardo Udal kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako eta birgaitzeko 01 fasearen exekuzio proiektuaren, Zerbitzuak eta Mantenua sailari dagozkien azpiegiturei buruzko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.



Usurbilgo Udala

Proiektuak jasotzen du saneamenduaren lotunea udal sarera egingo dela, errejistroko tarteko kutxeta berria eraikiaz:



Saneamenduako lotuneak eta eraikiko den errejistroko kutxetak hurrengoak beteko ditu:

- Lotune berria ur zikinen sarera bideratuko da.
- Eremu publikoan instalatzen diren ur-zikinen hodien gutxieneko diametro 315 mm izango da.
- Hodia PVC zorruna motatakkoa izango da.
- Kutxeta tapak Fundibide etxeokak izango dira eta Usurbilgo armarría eramango dute. Kutxeta tapen testua: Ur zikinak - Usurbilgo Udala.
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoaren bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- Hartune guztiak adierazten dituen planoak aurkeztuko da, espaloía eta gaur eguneko sareak adieraziz.

2018ko martxoaren 2an
Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak
Felix Aizpurua Arzallus

Oiardo Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen Exekuzio Proiektua onartzeko eskuduna Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da.

Gauzak horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Oiardo Udal Kiroldegiaren instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako 01 fasearen Exekuzio Proiektua (2018-06-11) onartzea, udal teknikariek ezarritako baldintzekin.



Usurbilgo Udala

5.- USURBILGO OIARDO KIROLDEGIKO INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO OBRAREN (01 FASEA) LIZITAZIOA.

Esp. zk.: ID.05/2018-0284

IKUSIRIK

Kontratuaren gaia helburua: Usurbilgo Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako obra burutzea (01 FASEA).

Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna: Oiardo kiroldegiaren jatorrizko eraikina A. Zulueta arkitektoak diseinatu zuen eta 1987an eraiki zen. Geroago, 2010ean, kiroldegiaren fatxada nagusiari erantsitako handitze bat egin zen Javier Lertxundi arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Orain, berriz, jatorrizko eraikinean dagoen igerilekuen guneari eta instalazioei eragiten dien birgaitze proiektua idatzi da. Izan ere, gaur egungo igerileku txikiak ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen eta zaharkituta dauden instalazioek duten berritzeko premia ere nabarmena da.

Kontratu mota: Obra kontratua.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura ireki sinplifikatu bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak doaz.

Txostenak

- Kontratazio beharraren txostena
- Idazkariaren lege txostena.
- Kontuhartzailearen ziurtagiria eta txostena.

Kontratu esleitzeko eskuduntza: 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa eta 2005eko abenduaren 12ko Alkatetzako Dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da, kontratazio honek udal aurrekontuaren errekurtso arruntetik %5etik gorakoa eta %10etik beherakoa denez.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Prozedura ireki sinplifikatuaren bitartez Usurbilgo Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako obra (01 fasea) kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari onespena ematea.

BIGARRENA: Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA: 2018 urteko aurrekontuan 634.415,50 € gehi %21eko BEZari dagozkion 133.227,26, guztira 767.642,76 € euroko gastua onartzea, 2018ko aurrekontuko 1-6000-623-342-00-02 kontu-sailaren kontura (A/405-2018 eta A/406-2018).

LAUGARRENA: Lizitazioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.